

**BILBO ZAHARREKO, SAN FRANTZISKOKO ETA ZABALAKO
MERKATARITZA LOKALEN KANPOKO ITXURA BISUALA
HOBETZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN PROGRAMAN
SARTZEKO DEIALDIA**

2026

1. AURKEZPENA

Bilboko Udalak hainbat urte daramatza Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetan lanean, helburu bikoitzarekin, batetik auzo bakoitzaren izaera eta fisionomia errespetatzea eta, bestetik, bizi kalitatean dauden aldeak murriztu eta populazioa are gehiago kohesionatzea.

Bilbo hiribilduko Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetan lehenago egindako planen testuinguruan garatutako lanak osatu nahi ditu eta horri jarraitutasuna eman nahi dio haurreko Zubirik 2025 Planak. XX. mende amaieratik auzo hauek interes berezia izan dute Bilboko Udalarentzat; espazio fisiko horretan hainbat egitasmo garatu dira azpiegiturak eta etxebizitzak hobetzeko, baita bertako auzokideen bizi kalitatea hobetzeko ere.

Une honetan, eta merkataritzaren esparruan, hiru auzoetako saltokien kanpoko itxura bisuala hobetzeko proiektu bat jarri nahi da martxan, aurreko urteetan planteatutako ekintzei jarraipena emateko.

Laguntza ekonomikoak Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetara bideratuko dira, eta helburua hiru auzoetako irudi komertziala hobetzea da, Bilboko gainerako hiritarrentzat erakargarriago egiteko.

Azaldutakoa oinarritzat hartuz, Bilbao Ekintza EPELeko Administrazio Kontseiluak, 2026ko oztailaren 09ko saioan, Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako merkataritza lokalen kanpoko itxura bisuala hobetzeko laguntza ekonomikoen programara sartzeko deialdia onartu zuen.

2. XEDEA

Deialdi honen xedea da Bilbao Ekintza EPELek onartu eta ematen dituen itzuli beharrik gabeko dirulaguntzetara sarbidea izateko betekizunak erregulatzea, Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetako beheko solairuko merkataritza lokalen kanpoko itxura bisuala birgaitu eta hobetzeko.

3. DIRUZ LAGUNGARRIAK DIREN JARDUKETAK

Beheko solairuan dauden merkataritza lokalen fatxadak, erakusleihoak eta sarbideak hobetu, egokitu eta/edo modernizatzeko obrak. Ohiko mantentze lan eta zaintza lanez gain, obra horiek lagungarriak izango dira higiezinaren kanpoko itxura hobetzeko.

-Erakusleihoak, altzariak eta dekorazioa barne.

-Errotuluak eta bestelako kanpo elementuak.

-Erakusleihen kanpo argiztapena.

-Pertsianak ordezteak (itsuen ordezkariak).

-Kanpoko obra eta erreforma txikiak, igeltserotza/arotzeria eta pintura.

-Saltokiaren fatxada birmoldatzea, erreformatzea.

-Irisgarritasuna.

-Antzeko beste batzuk.

4. PERTSONA ONURADUNAK

Pertsona fisikoak (autonomoak eta/edo profesionalak, eta izaera juridikorik gabeko sozietate zibil eta ondasunen komunitateko bazkideak) edo juridikoak, mikro enpresa edo enpresa txiki izaera badute eta beheko solairuko lokalean garatzen den edo garatuko den jardueraren titularrak badira, obrak, instalazioak edo jarduketak egingo diren lokalekoak hain justu ere, baita alokatutako lokalen jabeak ere.

Mikro enpresa edo enpresa txiki definizioari buruz gehiago jakiteko ikusi lehen eranskina.

Laguntzak eskatu ahalko dituzte bai lokalen jabeek, bai negozioak alokatutako lokaletan dituzten negozio jabeek, lokalaren titularraren onarpenarekin.

Era berean, pertsona onuradunak izatetik baztertuko dira kapital publikoko entitateak, zuzenbide publikoko entitateak eta sozietate publikoak edo batik bat administrazio publikoek edo horien mendeko entitateek gobernu organoetan edo kapitalean partaidetza duten beste batzuk.

5. DIRULAGUNTZEN PERTSONA ONURADUNAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUAK

5.1. Deialdi honetan araututako laguntzetara sartzeko ezinbesteko betekizuna da ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko arloan indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza oro betetzea. Aipatutakoa egiaztatzeko Surbisa- Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Bilbao SA entitatearekin lankidetzan arituko gara.

5.2. Onuradunek egunean egon beharko dute Bilbao Ekintzarekin edo/eta Udalarekin dituzten betebeharrak ekonomikoetan eta hirigintzako betebeharretan, laguntzak aitortzeko unean, eta egoera horri eutsi beharko diote jarduketak garatzen diren bitartean.

5.3. Pertsona onuradunek egunean egon beharko dute bai administrazio publikoekiko dagozkien zerga betebeharretan, bai Gizarte Segurantzarekiko bete beharrekoetan .

Pertsona onuradunek zerga betebeharrak , Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalaok betetzen dituztela organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du, ordainketa egin aurretik. Dena den, eskatzailea beren-beregi agertu ahal izango da egiaztapen hori egitearen aurka, eta, horretarako, bere kabuz aurkeztu beharko ditu baldintza hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.

5.4. Aurreko deialdian negozio beragatik laguntza ekonomikoa jaso duten pertsonak ezin izango dira onuradun izan.

5.5. Ez zaie laguntza ekonomikorik aitortuko komunitatean eragin negatiboa daukaten jokabide zakarrak dituzten negozio titularrei edo jabeei, salbu eta aipatutako jokabidea aldatze aldera bitartekaritza edo antzeko esku hartze bat jasotzeko asmoa agertzen badute. Hartara, egoera horretan dagoen pertsona onuradunak horri buruzko zinpeko adierazpena sinatuko du.

6. JARDUKETEN DENBORA ESPARRUA

Obrak egin beharko dira laguntzen eskatzaileek adierazitako epeetan. Hartara, obrak hasiko diren hilabetean, dirulaguntzaren eskaeraren xede den obra egikaritzen noiz hasi den jakinarazi beharko du, bai eta obra amaitzeko zenbatetsitako epea zein den ere.

Obrak gehienez ere zortzi hilabeteko epean gauzatuta egon beharko du, dirulaguntza ematen denetik zenbatzen hasita.

7. LAGUNTZEN KOPURUAK, MUGAK ETA BATERAEZINTASUNAK

Pertsona onuradunek obrak egiteko jasoko dituzten dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko babes daitekeen aurrekontuari % 50

aplikatu behar zaio. Dirulaguntza hau ezingo da izan sei mila eurotik (6.000,00 €) gorakoa espediente bakoitzeko.

Laguntzak bateragarriak izango dira beste entitate batzuek araututako laguntzekin; hala ere, jasotako laguntzek ezingo dute babes daitekeen aurrekontuaren % 100 gainditu.

8. DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO ETA ESLEITZEKO PROZEDURA

8.1. Eskaerak aurkezteko lekua

Pertsona juridikoek edo izaera juridikorik gabeko entitateek edo haien ordezkariak dirulaguntza eskaerak modu telematikoan aurkeztuko dituzte, behar den bezala beteta eta nahitaezko agiriekin batera, helbide elektronikoa honetara igorritik: comercio@bilbaoekintza.bilbao.eus.

Pertsona fisikoek dokumentazioa aurrez aurre entregatu ahalko dute, Bilbao Ekintza EPELeko bulegoetan, Zabalgune plazako 11. zenbakiko beheko solairuan, Merkataritza unitatean, 08:30etik 13:30era.

8.2. Aurkezteko epea

Dirulaguntza hauen deialdia lehia arrunteko araubidean egiten da; beraz, aurkezten diren eskaerak ordena kronologikoaren arabera baloratuko dira. Horretarako, eskaera osorik dagoenean joko da aurkeztutzat, antzematen diren ez-egiteak zuzenduta.

Laguntzen eskabideak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo eguneko 10:00etatik aurrera hasiko da, eta 2025ko abenduaren 30eko 13.30era arte egongo da zabalik, egun hori barne, edo esleitutako aurrekontua agortu arte.

Nolanahi ere, eskaera obrak hasi aurretik aurkeztu beharko da.**8.3. Erantsi beharreko dokumentazioa**

- a) Eskaera inprimakia, deialdiaren ereduarekin bat etorriz (2. eranskina).
- b) Jabetzako eskritura. Alokaturako negozioen kasuan, errentamendu kontratua aurkeztuko da eta jabeak obra egiteko onespena ematea.
- c) Jardueraren aurretiazko komunikazioa edo pareko dokumentua.
- d) Ogasun, Gizarte Segurantzaren eta Bilboko Udalarekin ordainketak egunean izateari buruzko ziurtagiri eguneratuak, eskatzailea Bilbao Ekintza datuak egiaztatzearen aurka ageri bada.
- e) Obraren aurrekontua.

Dirulaguntzen eskatzaileek emandako datu pertsonalak datuak babesteko arloan indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

- f) Banku-kontuaren ziurtagiria

8.4. Eskaeren instrukzioa eta balorazioa

Eskaeren balorazioa kronologikoki egingo da, 8.2 atalean xedatutakoa kontuan hartuta, eskaera aurkeztutzat jotzen den uneari dagokionez.

Deialdi honek Bilbao Ekintzako EPELeko Merkataritza Unitatera atxikitako teknikariek osatzen duten instrukzioko organo bat du.

Aurkezten diren eskaerak Balorazio Batzorde batek ebaluatuko ditu; lehendakaritza batek, idazkaritza batek eta batzordekide batek osatuko dute. Enpresa eta Enplegu Arloko arduradunak hartuko du lehendakaritza, Merkataritza Unitateko kide bat batzarkidea izango da eta idazkaritza-lanak teknikari batek egingo ditu —instruktoea ez dena—.

Balioespen Batzordeak ezarrita dauden betekizunak betetzen diren egiaztatu du, eta horri buruzko txosten bat egingo du.

Organo bideratzaileak, espedientea eta Balioespen Batzordearen txostena ikusirik, behin betiko ebazpen proposamena egingo du, eta bertan dirulaguntza ematen edo ukatzen den adieraziko da.

8.5. Ebazpena

Bilbao Ekintza EPELeke Zuzendaritza Nagusia da prozedura ebazteko eskumena duen organoa.

Ebazpena emateko epea bi hilabetekoa izango da gehienez, eskaera egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskaeraren ebazpena hamar egun balioduneko epean jakinaraziko zaie eskatzaileei, ebazpena emandako egunetik zenbatzen hasita. Gehieneko epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, dirulaguntza emateko eskaera administrazioaren isiltasunaren bitartez ezetsi dela ulertu behar da. Hala eta guztiz ere, epe hori igaro bada ere, Bilbao Ekintza EPEL erakundeak dagokion ebazpena eman eta jakinarazi ahal izango du.

Aurrekontu partida deialdi honetan jasotako kopurura mugatzen denez, hura agortzen bada, eskatutako dirulaguntzak ezetsi egingo dira.

Erakunde eskatzaileei dirulaguntza eskaera onartu edo ukatu den jakinaraziko zaie, bai eta guztizko zenbatekoa ere, hala badagokio. Eskaerek sorraraz ditzaketen ebazpenak eskatzaileek adierazitako bitartekoen bidez jakinaraziko dira.

Dirulaguntza ematen edo ukatzen duen ebazpenak administrazio bideari amaiera ematen dio. Haren aurka Zuzendaritza Nagusian aukerako berraztertzeke errekurtsioa jarri ahal izango da.

Eskatzaileak, ebazpena jaso ondoren, laguntza eskaeraren xede den obra egiteko lizentzia aurkeztu beharko du.

Pertsona edo erakunde onuradunetako batek dirulaguntzari uko eginez gero, edo erakunde onuradunetako bati aitortutako emakida baliogabetzen bazaio edo erakunde eskatzaileek gastuen justifikazioa aurkezteko epea amaitu ondoren soberakina/funtsa geratzen bada, Bilbao Ekintzak, beste deialdi baten beharrik gabe, dirulaguntza deialdiaren baldintzak betetzen dituen hurrengo pertsona edo erakunde eskatzaileari ematea erabaki ahal izango du, betiere, gutxienez ukatutako eskaera bati erantzuteko kreditu nahikoa liberatu bada. Zuzendaritza Nagusiak aukera horren berri emango die pertsona eta erakunde interesdunei, dirulaguntzaren proposamena 10 (hamar) eguneko epe luzaezinean onar dezaten. Pertsona

edo erakunde eskatzaileak edo eskatzaileek proposamena onartu ondoren, dirulaguntza emateko egintza emango da.

Dirulaguntza modu argudiatuan ukatu ahalko da baldin eta, bat etorri zira Eraikinen Ikuskapen Teknikoarekin, hirigintza planeamendu aplikagarriarekin edo hirian duen eragin bisual edo estetikoarekin, diruz lagunduko den jarduketan ez bada aurreikusi higiezin antzemandako eta pertsona interesdunari idatziz jakinarazitako akatsak edo hutsuneak zuzentzea. Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak dagokiona ebatziko du.

9. DIRULAGUNTZAREN BALDINTZAK ALDATZEA ETA ITZULKETAK

Laguntza emateko aintzat hartutako baldintzetan edozein aldaketa egonez gero, betiere laguntzaren helburua betetzat jotzen bada, edo, hala badagokio, beste edozein entitate publiko edo pribatuk emandako beste laguntza batzuk lortu badira, laguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake.

10. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Oro har, pertsona onuradunak adierazitako bankuko kontu korrontean sartuz ordainduko dira dirulaguntzak. Aitortutako laguntzak ordaintzeko, Bilbao Ekintzako zerbitzu teknikoaren txostenarekin aski izango da; txosten horretan azalduko da obra egitea bat etorri dela eskaeran aurkeztutako plangintzarekin; nolahi ere, obra egin izana justifikatzeko agiri teknikoak eta fakturak aurkeztu beharko dira.

Laguntzak ordaintzeko ohiko prozedura gorabehera, dirulaguntzaren % 50 ordaintzea aurreratu ahalko da; horretarako, hala adierazi beharko da eskaera aurkezten den unean, bigarren eranskinean. Ondorengo ordainketak egiteko beharrezkoa izango da aurrerapen horren gastua justifikatu izana.

Laguntzaren kopurua aurreratu ondoren obra ez bada egin aurreikusitako inguruabarretan, Bilbao Ekintzak aurreratutako kopurua itzultzeko eskaera egin ahalko du. Aipatutako kopurua itzultzen ez bada, pertsona onuradunak ezingo du Udalaren edo udalaren mendeko udal sozietateen beste laguntza edo dirulaguntza batzuetan parte hartu, Bilbao Ekintzako zerbitzu teknikoek arrazoitu eta onartutako inguruabarretan salbu.

11. ONURADUNEN BETEBEHARRAK ETA LAGUNTZAK EZEZTATZEA

11.1. Laguntzen onuradunek betebeharrak hauek dituzte:

- a) Deialdi honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak eta, bereziki, hitzemandako obra epeak betetzea.
- b) Justu ematen zaien xede horretarako erabiltzea dirulaguntza, eta adierazitako epeetan.
- c) Une oro Bilbao Ekintzako langile teknikariek obrak ikuskatzea baimentzea, baita horien inguruan eskatutako dokumentazioa aurkeztea ere.
- d) Obrak bukatzean kostua guztira eta behin betikoa egiaztatzea; horretarako fakturak, ziurtagiriak, banku ordainketen agiriak eta eskatzen zaien beste edozein dokumentu aurkeztu beharko dute. Bilbao Ekintzak, egokitzen jotako baliabideen bitartez, emandako kopuruak zuzen aplikatzen direla egiaztatu ahalko du, lortu nahi diren helburuei dagokienez, gastua kontrolatzen eta, hala badagokio, erantzukizunak exijituz, baita kopuruak itzultzeko eskatuz ere, dirulaguntza ematea ekarri zuen xedea bete ez bada. Helburu horrekin, Bilbao Ekintzak eskatzen dion informazio guztia emateko betebeharra izango du onuradunak, laguntzen helburua fiskalizatzeko zeregina betetz. Pertsona onuradunak onartu egingo du garatuko duen proiektuak indarrean dagoen araudia arlo guztietan bete behar duela, bai teknikoak, bai hirigintzakoak, bai zibila, bai beste edozein, aurkeztutako proiektuari dagokionez aplikagarria zaiona. Bilbao Ekintzak ez du inolako erantzukizunik izango onuradunaren ez-betetzei dagokienez.
- e) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrerak edo baliabide batzuk eskatu eta lortu izana Bilbao Ekintza EPELi jakinaraztea. Horien guztien berri jakin eta berehala egingo da jakinarazpena eta, nolahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

11.2. Laguntzak ezezteak

Aurreko atalean deskribatutako betebeharretako edozein betetzen ez bada, Bilbao Ekintza, EPELek eskubidea izango du emandako laguntza bertan behera uzteko eta ordaindutako kopuruak itzultzea erreklamatu ahalko du, hala badagokio.

Bidezkoa izango da jasotako kopuruak itzultzea. Dirulaguntza ordaindu den unean hasi eta dirulaguntza itzuli behar dela erabaki den egunera arteko berandutze interesak eskatu ahalko dira, baldin eta antzematen bada pertsona onuradunak dirulaguntza iruzurrez erabili edo baliatu duela, baita Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako kasuetan ere.

Laguntzak itzultzeko prozedura izapidetzean entitate onuradunari entzunaldi eskubidea ematea errespetatu egingo da; entitate onuradunak egokitzat jotako dokumentuak eta ziurtagiriak aurkeztu ahalko ditu eta alegazioak egin ahalko ditu Bilbao Ekintza EPELek jakinarazten dionetik hamar eta hamabost egun arteko epean; denbora tarte hori igaro ondoren entitateko sail teknikoak horri buruzko txosten bat emango du. Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza Nagusiak emango du itzultzeko eskakizunaren gaineko ebazpena, eta erakunde onuradunari jakinaraziko zaio.

Erakunde onuradunaren betetze maila erabateko betetzera modu esanguratsu batean hurbiltzen denean eta hark bere konpromisoak betetzeko jardun duela zalantzarik gabe egiaztatzen duenean, dirulaguntzaren xede den jardueraren betetze kopuruak edo mailak zehaztuko du itzuli beharreko zenbatekoa, proportzionaltasun printzipioa errespetatuz.

12. AURREKONTUEN KONTSIGNAZIOA

Deialdi honetara bideratutako zenbatekoa BERROGEI MILA EUROKOA da (40.000,00 €), indarrean sartzen denetik 2026eko abenduaren 30era arte.

Aurrekontua % 50era arte handitu ahal izango da, baldin eta eskaera gehigarriak aurkezten badira eta aurrekontu osagarririk badago.

13. PUBLIZITATEA ETA HEDAPENA

13.1. Oro har ezagutzera emateko, dirulaguntzak emateko edo ezeztatzeko ebazpenak eta balizko aldaketak urtero sozietatearen webgunean argitaratuko dira, baita Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen ere, beharrezkoa izanez gero.

13.2. Bilbao Ekintzak birgaitzea finantzatzen izan duen parte hartze ekonomikoaren berri ematen kolaboratu beharko dute laguntzen onuradunek. Dirulaguntza jaso duten proiektu teknikoetan bildutako argazkiak eta gainerako agiri teknikoak Bilbao Ekintzak erabili ahal izango ditu berak esku hartutako jarduketan publizitatea eta hedapena egiteko; nolahi ere, autorearen jabetza intelektuala errespetatuko da.

14. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

Deialdia honetan ezarritakoaz gain, honako hauetan xedatutakoa beteko da:

- Bilboko Udalak eta bere organismo eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (138. BAO, 2016ko uztailaren 20koa).
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hori garatzen duen erregelamendu araudia.

Halaber, dirulaguntzen arloan honako hauek ezartzen dutena aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, eta gainerako araudi osagarria.
- Gardentasunari, informazioa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen I. titulua.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

15. INTERPRETAZIOA

Bilbao Ekintzak eskubidea izango du egoera zalantzarrietan deialdi hau interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Horri dagokionez, deialdi honetako punturen batean zerbait garatu, aldatu, egokitu edo kendu behar izanez gero, funtsa aldatu gabe, Bilbao Ekintza EPELeke Zuzendaritza Nagusiari ematen zaio aldaketa horiek egiteko eskumena, baina Administrazio Kontseiluari horren berri eman beharko dio neurriak hartu ondoren egiten den hurrengo bileran.